

ON JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA

“Egin dagigun gizon ospetsuen gorai-pamena, belaunez be-laun” (Si 44, 1). Jose Maria Arizmendiarieta izango da, hogei-garren mendean, Euskal Herriak izan dauan gizonik ospetsue-na. Baten bat ez badago konforme baieztapen honeguz, aur-keztu dagiala bere mailako beste bat.

Markinar hau dogu MCCen (Mondragón Corporación Co-operativa) sortzaile, arnasa eta arima. Eskerrak berari, mundu zabalean, gaur egun milaka eta milaka pertsona, hirurogeita hamar mila baino gehiago, bizi dira. “Eta hori, ez limosna bi-dez, lanaren bitartez baino. Hortik dakusagu haren atertu bako ekina gazteak argitzen, sendiak sendoagotzen, lanbideak sortzen, lantokiak ugaltzen, eta ondoren onurakorrez, erriak ornitzen” (Eusebio Erkiaga) Berba egokiak, bete beteak!

Edizio kritikoa

Baditugu, besteak beste, hiru liburu On Jose Mariagana hu-rreratzeko. Bata, Joxe Azurmendiren “El Hombre Cooperati-vo”, bestea Fernando Molinaren “José María Arizmendiarieta” eta hirugarrena J. Ignacio Tellechearen “El otro Dn. José Ma-ría”.

Hirurak aberatsak, ederrak. Euroi zor deutset, gehienez, nik neuk ezagutzen dodan Arizmendiarieta. Gainera, Telle-chearena aurtengo gogo-jardunak egiteko erabili izan dot. Eta

nire on biderako ere itzel lagundu deust. Barnenetik poztuko nintzake holako euskaldun bat aldaretan ikustez.

Baina nik neuk nahi dodana orain beste hau da: haren idazlan guztien edizio kritiko sakon baten argitaratuta ikustea. Horrela bere iturburutik zuzenean ur garbiagoa dastatzeko. Eta ez beste batzuek idatzitako liburuen bitartez bakarrik.

Esaterako, niretzat oso interesgarria izan da, Teresa Lisieuxkoaren kasuan bere idazlan guztien edizio kritikoa zortzi tomotan eskuetan izatea. Eskerrak edizio zoragarri horri, jarraitu izan dot urterik urte eta ia egunetik egunera Teresitaren barneko eboluzio hunkigarria. Ez da erraza izango beste kasu bat horrenbeste ziurtatutako dokumentazio daukanik: Eskuizkribu autobiografikoak, Gutunak, Olerkiak, Deboziazko solasantzerkiak, Otoitzak, Azken Elkarrizketak, Bestelako idazkiak. Baita Santa eta Elizaren Irakasle izendatzeko prozesuak ere. Oraintsu, haren gurasoak aldaretara jasotzeko prozesuak ere oso lagungarri izan ditut Teresitaren mezua eta bizitza dastatzeko.

Holako zerbait egitea merezi dau Arizmendiarieta bezalako gizon bikain batek. Edizio kritikorik ez daukagun bitartean Azurmendiren edo Molinaren edo Tellechearen edo urlia-
ren “On Jose Maria” izango dogu. Eta ez bakotxak zuzenean billatu nahi dauana.

“Beti abadea, Danean abadea, Bakarrik abadea”. Baiña On Jose Mariaren abade izatearen barruko eboluzioa ez dau hain garbi azaltzen I. Tellecheak. Hori posible izango litzake haren idazlanen edizio kritiko on bat bagendu. Baita beraren izaeraren barneko kristautasunaren muina ezagutzeko ere.

Nazareteko Jesus

Tellechearen “El otro Dn. Jose Maria” liburuaren bigarren zatiak, argitaratu bako hirurogei testu dakarz. Edizio kri-

tikoaren faltan, eskertzekoa da holako zerrendatxoa ere eskuetan izatea, On Jose Mariaren barne-barneko espiritualitatea eta arima zerbait gustatzeko.

Argi nabaritzen da haren bizitzan Jaungoikoaren lehentasuna. Bere bizipen ederrena eta sakonena Jaungoikoa dau. Bere bizitzaren eta proiektuen muina. Ez edozelako Jaungoikoa, Nazareteko Jesusena baino. Bada hor argi egiten dauan frase bat, ni neuri asko gustatu jatana: “On Jose Mariaren sorburua ez da aurkitzen Iturben (jaio zan baserria), Nazareten baino”.

On Jose Mariaren ametsa, irrika, pasioa Kristo Jesus zortzeraino maitatzea izango da. Beragaz maiteminduta bizitzea. On Jose Maria mistiko bat dogu. “Enchocharnos de Cristo” da erdaraz erabiltzen dauan esaldia. Kristogaz maiteminduta, enamoratuta, liluratuta bizi. Kristo izango dau bere arimaren arima, bere arnasaren arnasa, bere bihotzaren bihotza, bere biziaren bizia, bere egiaren egia, bere maitasunaren maitasuna, bere askatasunaren askatasuna. Egunero iraungo dau gixienez ordubete otoitzean, Ebanjelioak gogoan erabiliz, Jaunaren sentimenduak eta izatea bereganatzeko.

Sarritan, errepikatzen deutse, batez ere gazteei, bere barneko esperientzia: “Kristaua naz, hau da, Kristorena naz, Kristo daukat. Kristo daroat neure bihotzean, bere sentimenduak eta pentsamenduak eta egiteak nireganatzen dodazan neurrian. Kristo buruan eta bihotzean, eta ez paparrean bakarrik”.

On Jose Mariaren Jaungoikoa gizon egiten da eta bere izena Jesus dau. Ondorioz, zirrara sortzen dauan hunkigarrizko hausnarketa honek merezi dau gogoratzea: “... Ordutik aurrera, bertan behera geratzen dira, Jaungoikoaren eta munduaren arteko banaketa, gizatasuna eta jainkotasunaren arteko banaketa, nekaldiaren eta biztueraren arteko banaketa, gorputza eta arimaren arteko banaketa, lur honetako eta betiko bizitzaren arteko banaketa, naturaren eta graziaren arteko banaketa, sakratu eta

profanoaren arteko banaketa, ni eta lagun hurkoaren arteko banaketa, otoitza eta lanaren arteko banaketa...”.

Pentsamendu honeek, berehalaxe dakarstaz gogora kristau mistikoen bizipenik ederrenak. Besteak beste, “Jaungoikoa guztietan guztia” (1Ko 15,28) izango da San Pauloren bizipoza. Eta zer esanik ez, Juan Gurutzekoaren Arima maiteminduaren otoitz hunkigarria:

“... Neureak dira zeruak eta neurea lurra; neureak dira jendeak, zintzoak neureak dira, eta neureak pekatariak; aingeruak neureak dira, eta Jaungoikoaren Ama eta gauza guztiak neureak dira, eta Jaungoikoa bera be neurea da eta neuretzat, Kristo neurea dalako, eta dana neuretzat. Zer eskatzen eta bilatzen dozu, ba, ene arima? Zeurea dozu guzti hau, eta dana dozu zeuretzat...”.

Batasun miragarria, inondiko nahasketa bakoa!

A. Olea